

Ordizian, bi mila eta zortziko irailaren 18an UDALBATZARRAK APARTEKO BILERA egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea

BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Iñigo Manrique Cía	PP	taldea
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

INTERPRETARIA:

Garbiñe Mendizabal Mendizabal.



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- Kreditu-transferentzien espedientea onartu.
..... 3.orria
- 2.- AIU 30 "Oiangualde" interbentzio eremuaren Plan Partziala behin betiko onartu.
..... 5.orria

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 8,00 etan

AMAIERA: 8,20etan



Lehenengo aztergaiaren berri eman da.

1.-Kreditu-transferentzien espedientea onartu.

Proposamena

KREDITU-IGOERA

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
222.111.00.01	Gobernu organoetako telefono-deiak	500,00
226.111.00.98	Nahi gabeko gastuak	2.000,00
226.111.00.99	Gobernu organoetako hainbat gastu	8.000,00
622.111.00.02	Epaitegiko behin betiko bulegoa egokitzea	53.550,00
623.111.00.02	Zuntz optikoarekin lotura berriak.	500,00
220.121.00.01	Bulegoko material arrunta	3.000,00
227.121.00.99	Itzulpenak kanpora ateratzea	6.000,00
649.121.00.01	Administrazio Orokorreko informatika-programak	4.100,00
623.123.00.04	Epaitegirako zizaila erosteko	130,00
220.123.00.01	Epaitegiko bulegoko material arrunta	700,00
222.123.00.01	Telefono-deiak Epaitegia	400,00
121.222.11.01	Udaltzaingoko ordainsari osagarriak	20.000,00
221.222.11.01	Udaltzaingoa, argindarra	500,00
221.222.11.04	Udaltzaingoa, erregaia	1.000,00
221.222.11.99	Udaltzaingorako bulego-materiala	400,00
224.222.11.02	Udaltzaingoa, aseguruak	630,00
227.222.11.01	Udaltzaingoa, bulegoak garbitzeko	3.000,00
227.222.11.02	Udaltzaingoa, segurtasuna	250,00
227.222.11.05	Animaliak zaintzeko kontratua	2.000,00
622.222.11.01	Bonberia zaharra berritzea	2.500,00
625.222.11.01	Udaltzaingoa, altzariak	470,00
625.222.11.99	Hainbat gauza erosteko	350,00
213.223.10.01	Babes Zibileko ibilgailuen mantenua	2.100,00
221.223.10.05	Babes Zibileko arropak	400,00
224.223.10.02	Babes Zibileko ibilgailuen aseguruak	500,00
211.313.81.01	Jubilatuenea mantentzeko	575,00
121.313.99.01	Gizarte Ongizateko ordainsari osagarriak.	12.000,00
220.313.99.01	Barretxerako bulego materiala	500,00
221.313.99.03	Barretxerako ga-horniketa	300,00
480.313.99.02	Larrialdietarako laguntzak	50.000,00
625.313.99.01	Gizarte ongizateko altzariak	1.630,00
626.313.99.01	Gizarte ongizateko informatika-ekipoak	915,00
222.321.10.01	Telefono-deiak Helduen Hezkuntza	50,00
221.413.20.99	Material berezia arratoigabetzeko	200,00



227.422.11.02	Jakintza ikastolaren segurtasuna	400,00
601.422.12.01	Urdaneta ikastetxeko itxiturako sarea aldatzea	44.500,00
623.422.12.01	Galdara berria	5.550,00
623.422.12.02	Gimnasioan zoru bero-emailea jartzea	68.600,00
226.432.10.03	Publizitate eta propagana Hirigintza	2.000,00
221.433.00.01	Kale Argiteriako energia	10.000,00
224.433.00.02	Kale argiteriako ibilgailuen aseguruak	200,00
221.435.00.04	Biltegiko erregaia	400,00
623.435.00.04	Biltegiko tresnak	200,00
601.441.20.01	Arramendibidean urak biltzeko berrikuntza	7.050,00
121.442.20.01	Kale garbitasuneko ordainsari osagarriak.	32.000,00
227.442.20.01	Herriko Jaietako kale-garbitasuna	1.500,00
226.444.00.06	Ingurumeneko ekintzak	500,00
227.444.00.07	Aholkularitza tekniko ofizialeko zerbitzua.	7.080,00
231.444.00.01	Agenda 21eko zinegotzien dietak	1.000,00
221.451.10.01	Argindarra Kultura	1.500,00
481.451.10.05	Arte-lanak artatzeko diru laguntza	8.700,00
626.451.10.01	Informatika-ekipoak, Kultura	750,00
602.451.30.01	Ondare historikoa, Urdaneta	15.015,00
121.455.10.01	Ordainsari osagarriak, Euskara	5.700,00
212.469.10.01	Makina,lanabes eta tresnak mant. Gazteria	1.100,00
220.469.10.01	Bulegoko materiala, Gazteleku	150,00
222.469.10.01	Telefono-deiak Gazteria	650,00
230.469.20.01	Dietak, joan-etorriak Gazte Bulegoa	100,00
213.511.00.01	Kaleen mantenuko ibilgailuen mantenua	1.000,00
226.511.00.99	Kale zerbitzuko hainbat gastu	2.700,00
601.511.00.02	Hego bialek Malkaskoko zubirainoko espaloia	22.500,00
601.511.00.03	Oztopo arkitektonikoak kentzeko.	19.000,00
601.511.00.06	Plaza Juan XXIII errotonda berritu	8.500,00
601.511.00.10	Espaloiak berritu	5.100,00
720.511.00.01	Arana kalearen trazaketa aldatu	13.700,00
212.611.00.01	Makina,lanabes eta tresnak mant. Kontu-hartzailletza	600,00
226.611.00.99	Hainbat gastu Kontu-hartzailletza	3.100,00
227.611.00.07	Zerbitzuen kontratua Kontu-hartzailletza	20.000,00
626.611.00.01	Informatika ekipoak Kontu-hartzailletza	1.115,00
226.622.30.99	Hainbat gastu asteroko feria	650,00
214.622.31.01	Altzarien mantenua Feria Bereziak	505,00
226.622.31.96	Azoka bereziak.	1.600,00
230.622.31.01	Dietak, joan-etorriak, Feria bereziak	2.000,00
231.622.31.01	Joan-etorriak eta dietak Azoka bereziak	600,00
	GUZTIRA	496.465,00

KREDITU-GUTXITZEA

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
626.121.00.01	Informatika-tresnak erostea	6.880,00



480.313.99.01	Etxez etxeko laguntza	50.000,00
622.422.12.01	Urdaneta ikastetxeko pilotaleku estaliaren beharra.	118.650,00
431.452.20.01	Majori Kiroldegiari ekarpena	295.935,00
601.511.00.04	Kaleak asfaltatzea	25.000,00
	GUZTIRA	496.465,00

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jauna

Espediente hau onartu beharra dagoela esan du, ordaintzeko dauden hainbat ordainketari aurre egiteko.

Espediente honentzako behar den kredituaren jatorria azaldu du, aurrekontuko bost partidetatik datorrena:

- .- Informatika-tresnak erostea
- .- Etxez etxeko laguntza
- .- Urdaneta ikastetxeko pilotalekua eraikitzeke
- .- Majori Kiroldegiari ekarpena
- .- Kaleak asfaltatzea

Kreditu-igoeran nabarmenenak aipatu ditu.

Maiza anderea

Urdaneta ikastetxean egiten ari diren obrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak diruz lagundu dituela %60an esan du, eta GAO n argitaratzeko daudela, urte amaitu aurretik dagokion diru laguntza kobratuko dugula uste du.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:



Aldekoak: 8 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (EB-Berdeak/Aralar 2)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

2.- AIU 30 “Oiangualde” interbentzio eremuaren Plan Partziala behin betiko onartu.

Proposamena

2008ko apirilaren 24ko Alkatearen 379.dekretu bidez onartu zen hasiera batean “AIU 30 Oiangualde” interbentzio eremuko plan partziala, beti ere, 2008ko apirilaren 21eko udaleko txosten teknikoan aipatutakoak konpontzekotan.

Onartzeko erabaki hori jendaurrera jarri da 20 egunez eta alegazio bakarra aurkeztu du Edurne Huesa Otegi andreak Ordiziako Oiangu Parkea Bizirik Natur Elkartearen ordezkartzan.

Aldi berean, Uraren Euskal Agentziaren eta Errepideetako Departamentuaren txostenak egin dira.

2008ko irailaren 15eko Udal Aparejadorearen txostena eta Obra eta Hirigintza Delegazioaren aldeko irizpena ikusita

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Ordiziako Oiangu Parkea Bizirik Natur Elkartearen izenean, Edurne Huesak egindako alegazioak ukatu, honako arrazoiengatik:

- a) Arau Subsidiarioetan ezarritako helburu eta irizpideen arabera garatu du Plan Partzialak Eremuaren antolaketa.
- b) 2/2006 legeak plangintza orokorra gauzatzekoan, Plangintzako Aholku Batzordearen partaidetza eskatzen du derrigorrez, ez ordea horren garapenaren plangintzan.
- c) Proposatutako bideak Oiangurenerako bidearekin bat egiten ez duen arren, eta Arau Subsidiarioek derrigorrez azaltzen ez duten arren, II.12. planoan “Antolamendu



orokorra. Proposamen ilustratiboa”, eremuaren antolaketa posible bat ezartzen da, eta antolaketa horretara mugatzen da oinarrian Plan Partziala.

- d) Terrazetako gunean Arau Subsidiarioek ezartzen zituen espazio libreen antolaketa planteatzen du Plan Partzialak . Espazio libreen gune horrek terrazan babes gisa balio izaten zuen, Plan Partzialak terrazak ez dituela eragiten ulertuz.

2. Errepideetako Departamentuaren iritzia aintzat hartu, aurrez ezarritako zonakatzea aldatzeko gaiarekin lotutakoa. Etorkizunean 42 metro diametroko errotonda egiteko titularitate publikoko eraztun handia izatea ahalbidetuko duelarik.

3.- AIU 30-Oiangurenaldea interbentzio eremuaren Plan Partziala behin betiko onartzea.

4.- GAO n eta lurraldean gehien zabaltzen den egunkarietako batean argitaratu behin betiko onarpeneko erabakia.

5.- Agiriaren kopia bidali Gipuzkoako Foru Aldundira Plangintzako Erregistroan sartzeko eta beste kopia bat, berriz, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Ingurumen Zuzendaritzara.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: absolutoa.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

Erabaki hau hartzeko dagoen presa azaldu du: 2006ko irailaren 20an sartu zen indarrean Lur-zoruaren 2/2006 Legea eta horren Laugarren Xedapen Iragankorrean ezartzen duenez, babes publikoko erregimen baten menpeko etxebizitzetako gutxieneko kopurua eta estandarrak betetzea eskatuko da Lege hori indarrean sartu eta bi urteko epean behin betiko onartu ez diren ordenazio xehakaturako plan guztietarako. Datorren irailaren 20an amaitzen da epe hori.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakariak proposamenaren bozketari ekin dio, zehaztutako zuzenketak egin ondoren.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:



Aldeko botoak: 8 (PNV 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 2)
Kontrako botoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)
Abstentzioak:0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Eta beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak bukatutzat eman du bilera eta nik, Behin-behineko Idazkariak, bertan esandakoa honako honetan jaso eta ziurtatu egin dut.

